

Psoriasisia

Azaleko hanturazko gaixotasun kronikoa da, **ez da kutsakorra**, eta **agerraldiak izaten ditu bizitzan zehar**. Aldez aurretiko joera genetikoak du eta edozein adinetan agertu daiteke, baina sarriago agertzen da 15 eta 35 urte bitartean. Espainiako biztanleriaren %1,4rengan du eragina, sexu bietan era berean.

Prozesu onbera da baina eragin psikologikoak izan ditzake.

Bere ezaugarriak, hauexek: ezkata zuriz estalitako plaka gorriak agertzen dira, sarritan belaun eta ukondo gainetik, baina gorputzaren edozein ataletan agertu daiteke, mukosetan izan ezik.



Zein faktorek dute eragina?

Honako hauek piztu dezakete agerraldia: traumatismoak, infekzioak, estresak, antsietateak eta farmako batzuek. Ez dute eraginik ez higieñak ez sexu-jarduerak.

Dieta

Ez du eraginik, baina badirudi janari batzuek, apioak adibidez, hobetu egiten dutela.


Eguzkia hartzea

Eguzkitan erre barik beltzarantzeak lesioak hobetu ditzake. Hoberantz egiten du udan eta udaberrian.

Zelan tratatu dezakegu?

Faktore eragileak saihestu behar dira: estresa, traumatismoak, infekzioak, antsietatea, farmakoak...)

Egunero krema hidratatzaileak eman lesioen elastikotasuna hobetzeko eta eguzkia hartu erre barik. Laguntza psikologikoa ere beharrezkoa izan daiteke.



Tratamenduak, larritasunaren arabera, azalean jartzeko produktuak, fototerapia (eguzkia hartu edo UVA izpiak) edo ahotik hartutako medikamenduak izan daitezke. Lesioak kontrolatzeko edo desagerrarazteko balio dute eta, horregatik, denbora luzez jarraitu beharreko tratamenduak dira.

Produktuok zera eragin dezakete: lehortasuna, narritadura eta ezkatatzea.

Tratamenduak luzaroan jarraitzea eskatzen du baina eraginkorra da.